

Kirol Zerbitzua

Albisteak

## Gure ikasleak Murtzian izan dira Espainiako Igeriketako Txapelketan

2017/05/15

Pasadan astean ospatu ziren Igeriketako eta karatea Espainiako Txapelketak Murtzian UCAMek antolatuta, guztira 500 ikasle baino gehiago elkartzuz.

Unibertsitateen arteko harremana ona dela eta, elkarrekin bidaiatu genuen EHU, UNav eta MUnibertsitateko kideak, aurten gu izan garelarik denen arduradunak.

Bigarren egunean goizez egin ziren akreditazioak eta arratsaldean hasi ziren proba ezberdinak.

Ostegunean ospatu ziren beste proba denak, baina gure igerilariek gutxi egin dezakete UCAMek dituen igerilari olinpikoen aurrean garaipena lortzeko, baina bakoitzak bere marka onenen inguruan aritu dira, klaseko azterketa garai hauetan.

Txapelketa eta gero, bueltan etorri ginen berriro 10 ordu eta erdiko bidai luzean.

Eskerrik asko Ander Jimenez eta Marta Melendezi egindako esfortsuagatik.

Hemen ikusi ditzakezue emaitza denak.

